

“Etorri eta ikusi”

Abestia,

Etorri eta Ikusi J. Elezkanorena:

Poz-pozik natorkizu, Jesus, benetan nahi baitzaitut ondo ezagutu	ta zuri gogotsu jarraitu zeu zarelako nire eredu ta maisu.	Zu non bizi zaren jakin nahi genuke; eta zuk “Zatozte ta ikus ezazue”.
---	---	---

Pozik gaude... gaur kurtso berriari ekingo baitioguz. Guraso eta haur elkartu gara beste behin ere, Jesusen ezagutzan aurrera egiteko eta bere atzetik jarraitzeko gonbidapenari erantzuteko.

Sarrerako abestia berriz abesten dugun bitartean, eragileak oinatzak (koloretako kartulinekin ekingo ditugu) banatuko dizkie partaideei. Beraien izena eta haurrena idatziko dute bertan. Oinatz horiek erdiko korridorean jar ditzatela (edo, ospakizuna egiten ari diren lekuaren arabera, erdian).

Oinatz bitartez, Jesusengana garamatzen bidea irudikatuko dugu.

Eta Jesusen adiskideek bezala... berak dioskuna entzungo dugu. Joanen liburuko kontaketa honetan, dei egiten zaigu Jesus ezagut dezagun.

Jainkoaren Hitza - Ebanjelioa: Jn 1, 35-39

“Hurrengo egunean, berriro ere bertan zegoen Joan bere bi ikaslerekin. Jesus handik igarotzen ikusirik, esan zuen:

- Hona hemen Jainkoaren Bildotsa.

Bi ikasleek, hori entzutean, Jesusi jarraitu zioten. Jesusek atzera begiratu eta ondoren zetoziola ikusirik, galdetu zien:

- Zeren bila zabilzate?

Haiek erantzun:

- Rabbi, non bizi zara? (Rabbik ‘Maisu’ esan nahi du)

Jesusek esan zien:

- Etorri eta ikusi.

Joan, non bizi zen ikusi eta berarekin gelditu ziren egun hartan. Arratsaldeko laurak alde zen”.

Azalpen laburra eta barneratzea.



**Bilboko
Elizbarrutia**
DIÓCESIS DE BILBAO

Fede-zabalkunde eta
Katekesirako Ordezkaritza
Delegación de
Anuncio y Catequesis



Jesusen hasierako adiskide haiek jakin-minez zeuden, Jesus nolakoa zen, zer egiten zuen, nola, non bizi zen... jakin nahi zuten.

Eta Jesusek biderik egokiena aukeratzen du haien jakingura hori asetzeko: bere bizimodu zehatza erakutsi, eta horretarako, berarekin joateko eta egoteko esaten die.

Eta horixe diosku gaur gutariko bakoitzari: "Etorri eta ikusi".
Eta guk... nahi dugu, joateko prest gaude...?

Minutu batzuek, musika gozoa jarrita dela, isilunea egingo dugu, barneratzea eraginez. Ondoren, partaide guztiek, nagusi nahiz txiki, bidea egingo dute oinatzen gainetik. Bitartean, ondorengo edo antzeko galderek haritik hausnartu egingo dugu:

- Zer dela-eta noa Jesusengana...?
- Zer da Berarengan bilatzen dudana...?
- Nire bizitzarako erabakigarria den galderarik egingo nioke...?

Hurrekin, beraiei egokitutako ariketa egingo dugu.

Zatar-paperean egingo dituzte beren oinatzat; margotu eta gurasoen oinatzen ondoan ipiniko dituzte.

Margotzen ari diren bitartean, honako hauen inguruan hitz egingo dugu beraiekin:

- Jesusek gure adiskide ere izan nahi du
- Talde honetan... Jesusi buruzko gauzak ikasiko ditugu
- Baina ez dugu bakarrik egingo, gurasoekin eta beste hainbat neskato-mutikorekin baizik
- Eta elkarrekin egingo dugu Jesusenganaino eramango gaituen bidea

Bera ezagutzeko prest gaudela eta horretan laguntzeko esango diogu Jesusek

Otoitz egingo dugu abestiarekin, denok batera ozen esanez:

Poz-pozik
natorkizu, Jesus,
benetan nahi baitzaitut
ondo ezagutu

ta zuri
gogotsu jarraitu
zeu zarelako nire
eredu ta maisu.

Zu non bizi zaren
jakin nahi genuke;
eta zuk "Zatozte ta ikus
ezazue".

Eta, amaitzeko, abestu egingo dugu.


Abestia eta irudietako bat plastifikatu egin daiteke eta familiei banatu, etxera eraman dezatn.

Kurtsoko lehen saioa bada, azkenean, askaria egin daiteke.



Fede-zabalkunde eta
Katekesirako Ordezkaritza
Delegación de
Anuncio y Catequesis





Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

Fede-zabalkunde eta
Katekesirako Ordezkaritza
Delegación de
Anuncio y Catequesis

esnatu